

Graduado o Graduada en Maestro en Educación Primaria  
*Lehen Hezkuntzako Irakasleentzako Gradua*

Trabajo Fin de Grado  
*Gradu Bukaerako Lana*

**La empatía en Educación Primaria:  
de la necesidad a la acción**  
*Enpatiaren lanketa Lehen  
Hezkuntzan: beharretik ekintzara*

Estudiante/Ikaslea: Anne Martija Ollacarizqueta  
Bideorako esteka: <https://youtu.be/zKdTSLgSnN4>

Tutor/Tutorea: Igor Saenz Abarzuza

Departamento/Saila: Giza eta Hezkuntza Zientziak Saila

## **Resumen**

La empatía es una de las bases de la inteligencia emocional y una habilidad por la que cada vez mas metodologías y centros educativos apuestan hoy en día. Estudios y personas entendidas en el tema afirman que el desarrollo y trabajo focalizado en esta competencia en el aula favorece el rendimiento escolar de los niños y niñas. Así pues, afecta tanto al desarrollo educativo como a la capacidad de desarrollo social del alumnado y se establece un ambiente basado en el respeto y la confianza. Para fomentar la educación centrada en la empatía, se ha desarrollado una propuesta didáctica en la que se plantean diferentes actividades relacionadas con la música y buscan trabajar el respeto y la gestión de las emociones.

*Palabras clave:* empatía; Educación Primaria; respeto; alumnado; emociones.

## **Abstract**

Empathy is one of the bases of emotional intelligence and a skill that more and more methodologies and educational centers are betting on nowadays. Studies and people knowledgeable in the subject affirm that the development and work focused on this competence in the classroom favors the scholastic performance of boys and girls. Thus, it affects both the educational development and the social development capacity of students and establishes an environment based on respect and trust. In order to promote education focused on empathy, a didactic proposal has been developed in which different activities related to music are proposed and seek to work on respect and the management of emotions.

*Keywords:* empathy; Primary Education; respect; students; emotions.

## **Laburpena**

Empatia adimen emozionalaren oinarrietako bat da eta gaur egun gero eta metodologia zein ikastetxe gehiagok horren alde egiten dute. Ikerketa zein gaian adituak diren pertsonen, gaitasun honetan oinarritutako gelan garatutako lanak haurren eskola errendimendua hobetzen duela baieztatzen dute. Horrela izanda, ikasleen ikaskuntza prozesuan eta baita garapen sozialean ere eragina du eta errespetuan zein konfiantzan oinarritutako giroa sortzen da. Enpatiara bideratutako hezkuntza sustatzeko helburuarekin,

musikarekin lotura zuzena duten eta errespetua zein emozioen lanketa sustatu nahi duten jardueraz osatutako proposamen didaktiko bat garatu da.

*Hitz gakoak:* empatia; Lehen Hezkuntza; errespetua; ikasleak; emozioak.

## AURKIBIDEA

SARRERA.....	6
1. GALDETEGIA.....	10
2. HELBURUAK.....	16
3. MARKO TEORIKOA.....	18
<b>3. 1. Adimen emozionala</b> .....	<b>18</b>
3. 1. 1. Adimen emozionalaren barneko gaitasunak.....	18
<b>3. 2. Enpatia</b> .....	<b>19</b>
3. 2. 1. Enpatia motak.....	20
3. 2. 1. 1. Alderdi edo osagai nagusiaren arabera.....	20
3. 2. 1. 2. Izaeraren arabera.....	21
3. 2. 2. Enpatiaren garapen faseak.....	21
3. 2. 3. Garapen enpatikoa.....	22
3. 2. 4. Eskola-klima eta enpatia.....	23
3. 2. 4. 1. Enpatia eskolan lantzearen onurak.....	23
<b>3. 3. Musika enpatia lantzeko baliabide gisa</b> .....	<b>24</b>
4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA.....	25
<b>4. 1. Sarrera</b> .....	<b>25</b>
<b>4. 2. Gaiaren justifikazioa</b> .....	<b>26</b>
<b>4. 3. Helburuak</b> .....	<b>26</b>
<b>4. 4. Edukiak</b> .....	<b>26</b>
<b>4. 5. Gaitasunak</b> .....	<b>27</b>
<b>4. 6. Denboralizazioa</b> .....	<b>28</b>
<b>4. 7. Jarduerak</b> .....	<b>28</b>
4. 7. 1. Lehenengo astea.....	28
Oharrak.....	29
Bigarren jarduera praktikara eramanda.....	30
4. 7. 2. Bigarren astea.....	34
Konposizio tailerra praktikara eramanda.....	35
<b>4. 8. Ebaluazioa</b> .....	<b>37</b>
ONDORIOAK.....	38
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	41

## **SARRERA**

Hoy en día la educación de los niños y niñas es un tema muy debatido y del que todo el mundo habla. Cada vez surgen más polémicas alrededor de la educación, que implican directamente tanto a los centros educativos y profesionales que trabajan en estos, como a las familias de dichos estudiantes. Todos estos debates surgen porque, la educación es un tema que importa y mucho a la sociedad en su conjunto. Uno de los principales temas por los que surgen estos debates, es la actitud o relación que se trabaja en los centros entre los alumnos y profesores, lo que afecta al desarrollo tanto educativo como afectivo-social de los niños y niñas.

Años atrás, cuando nuestros/as progenitores iban al colegio, no existía apenas relación entre docentes y alumnado, o al menos, era totalmente diferente a la actual. En el paradigma de la generación anterior, los profesores se ceñían a explicar el temario con el fin de cumplir su principal objetivo (la enseñanza) sin prestar apenas atención a las dificultades ni diferentes habilidades o capacidades de los estudiantes, dejando de lado las grandes maestras y maestros que, a nivel particular, destacaban. Pero, como modelo, en educación primaba una estricta metodología en las que los castigos eran uno de los pilares de la enseñanza.

Las metodologías innovadoras y que más fuerza y protagonismo acaparan hoy en día, en cambio, optan por un trato más cercano con el alumnado. Están en contra de los castigos y dan prioridad a la observación del desarrollo tanto educativo como afectivo de todos y cada uno de los y las estudiantes. Para esto, buscan la implicación de los centros educativos, los docentes, los y las alumnos/as y las familias de estos últimos. De esta manera, consiguen llevar a cabo un seguimiento continuo de cada estudiante y a la vez, desarrollan un vínculo más íntimo y cercano entre profesorado, alumnado y familiares que afecta considerablemente a los niños y niñas.

Debido a todo esto, los docentes se ven obligados a trabajar las emociones y muchos otros valores en sus aulas que, a posteriori, sus estudiantes tendrán que ir desarrollando para mantener relaciones socio-afectivas e implicarse en las necesidades de la sociedad. En relación a dichas emociones, hoy en día una de las habilidades sociales más trabajadas en los centros es la empatía, ya que se presenta como uno de los principales valores que afecta al desarrollo social, y por tanto, también al desarrollo educativo del alumnado.

Al ser estudiante de magisterio y estar llevando a cabo las prácticas requeridas para la titulación en un centro educativo, me he visto envuelta en un espacio en el que todas las emociones, sentimientos, valores y relaciones que se mencionan anteriormente forman parte del deber de la maestra. Observas cómo las relaciones entre los y las alumnos/as, como entre profesores y alumnado, requieren de ciertas actitudes con las que poder crear un entorno agradable y beneficioso para trabajar.

Así pues, aprovechando las prácticas de la carrera universitaria, y para elegir un tema que realmente fuera de interés para el claustro de maestras y maestros, se decidió crear una pequeña encuesta en relación a las habilidades sociales y la importancia que se le rinde a cada una de ellas en dicho centro. Así, una vez realizada la encuesta, los datos recogidos en esta fueron clave para concretar el tema de este trabajo: la importancia del desarrollo de la empatía en el aula y cómo trabajarla. Gracias a la participación de los docentes del Colegio Público de Atakondoa, la encuesta revelaba la necesidad y la falta de empatía que existía en el centro, tanto entre los y las alumnos/as, como entre los y las docentes. Además de ello, el estar presente durante varios meses en el colegio, me sirvió para conocer más de cerca la situación de muchas de las aulas y de los alumnos que estudian en ellas. Todo ello fue lo que impulsó desde un principio el motivo por el cual se ha llevado a cabo este trabajo.

Volviendo a la cuestión de la educación y como ya se ha mencionado anteriormente, es un tema debatido y de suma importancia, ya que existen diferentes pensamientos y opiniones sobre ello, por motivaciones tan diversas como tribus urbanas hay en la sociedad: hay quien está a favor de las nuevas metodologías y el acercamiento estrecho entre alumnado y profesorado, y quien critica ciertas actitudes y las clasifica (en ciertas circunstancias) como poco efectivas. Yo siempre me he decantado por el acercamiento y las relaciones más estrechas en los centros educativos, y después de haberlo vivido tan de cerca, sigo pensando que tratar temas como la empatía en los colegios es algo necesario.

Cada vez son más frecuentes los casos de acoso escolar o *bullying* que se dan a conocer, y que pueden terminar en un trágico episodio como puede ser el suicidio, tema tabú hasta hace poco tiempo. Que ahora se den más a conocer, sin embargo, no quiere decir que antes, cuando no eran tan mencionados, no existieran. Siempre han existido multitud de casos. Por ello, creo que una buena forma de parar esto o por lo menos, mejorar esta situación puede ser trabajando en los centros educativos la gestión de las emociones y los valores como el respeto y la empatía.

Como se expone en este Trabajo Fin de Grado, ciertos estudios y expertos en el tema afirman lo se acaba de mencionar: trabajando las emociones y la empatía, se desarrolla un ambiente más respetuoso en el aula y puede ser clave para disminuir los casos de acoso escolar o *bullying*. Todo ello, además, tiene consecuencias a la hora de trabajar y desarrollar el temario educativo y el aprendizaje, no sólo del alumnado implicado en los casos de *bullying*, sino en el de todos y cada uno de los niños y niñas.

En este trabajo, la empatía es el eje central. Para ello, se ha querido plantear y crear una propuesta didáctica donde se trabaje a fondo esta habilidad social mediante una serie de actividades. Sin embargo, siendo yo estudiante de magisterio y estando cursando la mención de música, he querido unir dicha propuesta didáctica con mi mención. De este modo, se han planteado varias

actividades en las que el alumnado trabaja indirecta o directamente la empatía haciendo uso de la música.

La música es una asignatura muy poco valorada en los centros educativos y en estos tiempos que vivimos, creo que más que nunca se ha demostrado que puede ser de gran ayuda para trabajar mil cosas. Debido a la pandemia que nos ha tocado sufrir, la música se ha convertido en fiel compañera de mucha gente y se ha dado a conocer el poder que tiene de cambiar e influir en nuestro estado emocional. Por eso, y por todo lo que me une a mí a la música desde que tengo uso de conciencia, he querido darle la importancia que creo que se merece a lo largo de todo este trabajo.

Por otra parte, tengo que admitir que el haber estado de prácticas en el Colegio Público de Atakondoa ha sido clave para aumentar aún más las ganas de desarrollar este trabajo. Conozco el colegio desde pequeña, ya que estudié allí, y volver a este centro y encontrarme con la falta de empatía que hay en las aulas, me afectó significativamente e hizo que mis ganas por estudiar esta carencia aumentaran. Y aunque lo que este trabajo reúne son datos y propuestas, en un futuro me gustaría poder ponerlas en práctica en el colegio y así conseguir mejorar la relación que existe hoy en día entre docentes y alumnado.

Dicho esto, solo me queda explicar la estructura de este trabajo y toda la información que se va desarrollar a lo largo de este. En primer lugar, se van a dar a conocer los datos recogidos mediante la encuesta que se llevó a cabo en el centro educativo, los cuales fueron clave para desarrollar todo lo que sigue. Una vez conocidos dichos datos, se reúnen una variedad de objetivos con un mismo fin: trabajar la empatía en el aula. Todos estos objetivos están explicados y desarrollados de manera ordenada y clara en esta sección del trabajo. Además, en dicho fragmento se mencionan varios objetivos de desarrollo sostenible que son requeridos a la hora de plantear un trabajo como este.

A continuación, se expone un marco teórico en el que se explican conceptos y temas relacionados con la empatía. A lo largo de esta sección, se pueden observar ciertos fragmentos en los que se va a desarrollar diferente información: primero se recogen diferentes definiciones del concepto "inteligencia emocional". En relación a esto, se dan a conocer cinco competencias o habilidades que forman parte de dicho concepto, entre las cuales se encuentra la empatía. Ya sobre la empatía concretamente, se recogen varias definiciones de diferentes investigadoras, investigadores y docentes con las que se intenta explicar lo más conciso y claro posible el concepto. Después, se desarrollan dos formas de clasificación de tipos de empatía. Siguiendo con ello, se expone información sobre las diferentes fases del desarrollo empático. Y, por último, se amplía la información acerca de la empatía dando a conocer la influencia que tiene esta en el ámbito escolar y la unión que existe entre esta y la música.

Una vez terminado el marco teórico, se desarrolla la propuesta didáctica donde se explican todas y cada una de las actividades que la forman. Con todo ello, se analizan los principales objetivos de esta propuesta, y se da a conocer la unión entre dichas actividades y el curriculum oficial que está en vigor en Navarra para la educación primaria. Como se puede observar en esta sección, varias de las actividades han sido llevadas a cabo en el colegio para analizar y ver la efectividad de estas; otras, en cambio, son sólo propuestas que están pensadas para en el futuro poder ponerlas en práctica.

Por último y para dar por finalizado este trabajo, se muestran las conclusiones. Por una parte, se valora todo lo aprendido y recogido a lo largo del marco teórico y por otra, las ideas y reflexiones acerca de la propuesta didáctica una vez terminada y planteada para trabajarla en un aula de tercero de primaria.




## 1. GALDETEGIA

Aipatu den bezala, lan honen gaia finkatzerako orduan Irurtzungo Atakondoa Eskola Publikoan egindako galdetegi motz batek eragin handia izan zuen. Galdetegi honen bitartez, ikastetxean bizi den egoera ezagutu eta bertan sumatzen diren gabeziak azaleratu nahi izan ziren. Hori dela eta, bertako Lehen Hezkuntzako irakasle guztiei zuzendutako zenbait galderek osatzen zuten honako galdetegia, beti ere adimen emozionalarekin lotura zuzena izanda.


Hasteko, gaiari sarrera emateko helburuarekin, adimen emozionalaren barnean sailkatzen diren bost giza aspektu edo beharrei buruz galdetu zitzairen. Hortaz, irakasleen iritzia eta bizipenak azaleratzeko bi galdera hauek planteatu ziren: alde batetik, aipatutako giza aspektu bakoitza lantzeak eduki beharko lukeen indarra eta garrantziari buruzko galdera bat eta bestetik, horietatik bat sakonki lan egiteko aukeratzeko galdera. Hauek izan ziren bi galdera horietan lortutako emaitzak:

Markatu 1etik 4ra zure iritziz zein den giza aspektu edo behar hauek lantzeak eduki beharko lukeen indarra eta garrantzia zure gelan/ Marca del 1 al 4 ...ajar cada uno de estos aspectos sociales en tu aula



Bat aukeratu beharko bazenu, zein landuko zenuke sakonki zure gelan?/ Si tuvieras que elegir una, ¿cual trabajarías más a fondo en tu aula?

10 respuestas




## Lehen Hezkuntzan empatia lantzeak irakaskuntza prozesuan eragina du

Bestalde, adimen emozionala osatzen duten bost giza aspektu eta behar bakoitzean oinarritutako bina galdera sortu ziren. Galdera horiek erantzuteko aukera izango lukete soilik aipatutako azkeneko galdera horretan erantzundakoaren arabera; hau da, irakasleren batek bere gelan empatia sakonki lantzea aukeratuta (harentzat beharrezkoa eta garrantzitsua delakoan), horri buruzko bi galderak erantzuteari ekingo lioke. Hori dela eta, aukera guztiak kontuan izanik, giza behar bakoitzarekiko bi galdera sortu ziren baina aurreko grafikoan ikus daitekeen bezala, bi erantzun ezberdin besterik ez ziren egon: empatia eta giza-abileziak/harremanak.


Hauak izan ziren enpatiaren inguruko galderetan lortutako emaitzak:

Zertan sumatzen duzu empatia falta?/ ¿En qué notas la falta de empatía?

7 respuestas




Baloratu itzazu empatia lantzeko ondorengo jarduerak (zure gelan landuko bazenitu)/ Valora las siguientes actividades para trabajar la empatía (como si las fueras a trabajar en tu aula)




Giza-abilezia/harremanen gaiari lotutako galderek, ordea, honako erantzunak jaso zituzten:

Zertan somatzen duzu giza-abilezia/harremanen falta?/ ¿En qué notas la falta de habilidades sociales?

3 respuestas




Baloratu itzazu giza-abileziak/harremanak lantzeko ondorengo jarduerak (zure gelan landuko bazenitu)/ Valora las siguientes actividades para trabajar las habilidades sociales (como si las fueras a trabajar en tu aula)



Galdetegiarekin bukatzeko, lanaren gaia zehatzagoa bihurtzeko asmoarekin, sei galdera motz sortu ziren, horietan neska-mutil zein kulturen arteko desberdintasunak agerian gera zitezten. Horretaz gain, ikasle eta irakasleen arteko harremanari buruzko hausnarketa moduko galdera bat txertatu zen eta azkenik, irakasleek haien iritzi pertsonala edo haientzat interesekoa zena azaleratzeko aukera ematen zuen galdera ireki bat planteatu zen. Horretan, ordea, ez zen erantzunik jaso. Aipatutako aurrekoetan, aldiz, hauek izan ziren jasotako datuak:


Neska eta mutilen arteko desberdintasunak sumatzen dituzu zure ikaskideen artean?/ ¿Ves diferencias entre chicas y chicos entre tus alumn@s?

10 respuestas




Aurreko galderan baietz erantzun baduzu, zertan ikusten dituzu desberdintasunak?/ Si en la anterior pregunta has respondido que sí, ¿en qué notas las diferencias?

7 respuestas




Kultura desberdineko ikasleen arteko desberdintasunak somatzen dituzu zure ikaskideen artean?/ ¿Ves diferencias entre niñ@s de diferentes culturas entre tus alumn@s?

10 respuestas




Aurreko galderan baietz erantzun baduzu, zertan ikusten dituzu desberdintasunak?/ Si en la anterior pregunta has respondido que sí, ¿en qué notas las diferencias?

5 respuestas



Ikasle-irakasle harremanean.../ En la relación alumn@-profesor(a)...



Ikus daitekeen moduan, hasierako grafikoek ikastetxean enpatia falta eta horren beharra adierazten dute, hori izan baitzen irakasleen ehuneko 70ak azpimarratutakoa. Horretaz gain, gabezi hori ikasleen eta baita irakasle-ikasleen artean ematen zela adierazi zuten grafikoek, hori lantzeko baliabide apropos gisa emozioen gaineko tailerrek zein talde lanek boto gehien lortu zutelarik. Datu horiek kontuan izanda, aurrerago garatuta azalduko den proposamen didaktikoa sortu da.

Bestalde, galdetegiaren azken atalean planteatutako galderetan lortutako emaitzek ikasleen arteko desberdintasunak nabariak direla adierazten dute: bai neska-mutilen artean eta baita kultura ezberdinen arteko ikasleen artean. Hori kontuan izanda, eta horrekin batera, aurreko galderetan talde lanari egokitutako garrantziak zein emozioak adierazteko gaitasunean irakasleek adierazitako ezberdintasunaren aurrean, aipatutako proposamen didaktikoak enpatiarekin lotura zuzena duten bi

Lehen Hezkuntzan enpatia lantzeak irakaskuntza prozesuan eragina du

gai horietara bideratu da. Hau da, lanaren oinarritzko gaia enpatia izanda, proposatutako jarduera zein ariketak talde kohesioa eta emozioak lantzeko helburuarekin sortu dira.

Bukatzeko, grafikoetan ikus daitekeen moduan, galdetegia bi hizkuntzatan egitea erabaki zen, izan ere, ikastetxeak bi eredu ezberdin eskaintzen ditu: A eta D. Hortaz, irakasle guztiek erantzuteko aukera izan zezaten, bai euskaraz eta baita gazteleraz ere egiteko erabakia hartu zen.

## 2. HELBURUAK

Behin proiektu honen gaia finkatuta, lanaren norabidea zehazteko unea heldu da. Hortaz, atal honetan lan hau aurrera eramatearen helburuak zeintzuk diren azalduko dira. Alde batetik, gaia orokorrean eta prozesuaren zergatia azalduko da; bestetik, lan hau egiterako orduan landu beharreko garapen jasangarriko helburuen artean zeintzuk aukeratu diren eta horren zergatia adieraziko da.

Hasteko, galdetegia egin eta bertan lortutako emaitzak direla eta, enpatiari buruzko ikerketa sakona egitea erabaki zen, honi buruzko informazio gehiago lortzeko helburuarekin. Esan bezala, enpatiaren gaiak gero eta indar handiagoa ari du lortzen eta datuen bilketan, irakasleek ere hala adierazten zuten gaiaren garrantziari buruz galdetzerakoan. Hori dela eta, lan honen hasierako helburua enpatiaren garrantzia eta honek duen eragina ikustaraztea eta azpimarratzea izan da.

Beharrezkoa den informazioa jasota, enpatia zer den, nolako garapena izaten duen eta nola eragiten duen ezagutzearekin batera, gaia hezkuntza sistemara bideratu da. Hau da, ikastetxeetan enpatia lantzeak ikasleen garapen kognitiboan eta baita ikaskuntza prozesuan ere nolako eragina duen aztertzea da helburu nagusia. Horrekin batera, ikasgelan nola landu daitekeen eta horretarako aproposak edo eraginkorrak diren metodoak aurkeztu nahi dira.

Aipatutakoaren harira, galdetegiaren datuetan oinarrituta, emozioen kudeaketak zein talde lanek eragin handia izan dezakete ikasleen lan eta garapen prozesuan, hori azpimarratzen baitute Atakondoako irakasleek. Hori dela eta, proiektu honen helburuetako beste bat bi aspektu horietan zentratzea eta aipatutako metodoak bi horiek lantzean oinarritzea da. Modu honetan, irakasleek egiten duten hausnarketak zentzua duen edo ez azaleratu dezake lan honek.

Bukatzeko, hasieran proiektuaren gaia zein izango zen jakin gabe ere, musikarekin lotura izango zuen zerbait landuko zela argi zegoen. Hortaz, enpatiari buruzko lana aurrera eramatea erabaki zen unetik, musikarekin izan dezakeen lotura bilatzeari ekin zen. Azkenean, gai horri lotuta, honako hau izan da helburua: ikasgelan musikaren bitartez enpatia nola landu daitekeen eta honek ikasleengan eduki dezakeen eragina aztertzea.

Behin proiektuaren oinarritzko helburuak ezagututa, garapen jasangarriko helburuak izendatzeari ekingo zaio. Hasteko, gaur egun adimen-osasunaren gaia pil-pilean dagoela probestuz, bakoitzaren osasuna zaintzeak duen garrantzia azpimarratzea beharrezkoa ikusten dut. Hortaz, proiektu hau ildo horretatik bideratu da, izan ere, enpatia, emozioak eta talde lana lantzeak ikasleen osasun mentalean eragin positiboa izan dezakeela eta haurrentzat onuragarria dela kontsideratu da, garapen jasangarriko helburuen artean hirugarrenak bilatzen duen moduan.

Bestalde, bosgarren eta hamaseigarren garapen jasangarriko helburuak kontuan hartu dira, izan ere, errespetuan eta ikasleen arteko harremanean oinarritutako lana izanda, horietan aipatzen

den genero berdintasuna zein justizia eta bakea lantzea eta horiei garrantzia ematea beharrezkoa kontsideratu da. Irakasleei zuzendutako galdetegian bildutako datuen arabera, Atakondoako Ikastetxe Publikoan genero eta kulturen arteko desberdintasuna adierazgarria da. Hortaz, ikasleen arteko berdintasuna eta haien arteko harreman estuak garatzea hezkuntza sistemaren helburua izan beharko litzatekeen modura, lan honetan gai horiek oinarritzat hartzea erabaki da, garapen jasangarriko helburu horietan aipatzen dena garrantzitsutzat hartuta.

Amaitzeko, lana hobekien laburbiltzen eta borobiltzen duen helburua laugarrena da: kalitatezko hezkuntza bilatzen duena. Behin eta berriz errepikatu den bezala, enpatian, errespetuan eta talde lanean oinarritzen den hezkuntza sistema bideratzean oinarritzen den proiektua da honako hau. Horrek guztiak, eragin zuzena dauka ikasleen egoera emozional zein akademikoan eta beraz, hezkuntza sistemaren kalitatean ere. Hori dela eta, proiektu honen helburuek erabateko lotura dute garapen jasangarriko laugarren helburu honekin, izan ere, hezkuntza inklusibo, bidezkoa eta kalitatezkoa sustatzea du jomuga.

Laburbilduz, honako hauek dira lan osoaren helburuak:

Helburu orokorrak	Garapen jasangarriko helburuak
Enpatiaren garrantzia eta honek duen eragina ikustaraztea eta azpimarratzea.	Bizimodu osasuntsua bermatzea eta, adin guztietan, guztien ongizatea bultzatzea.
Ikastetxeetan enpatia lantzeak ikasleen garapen kognitiboan eta baita ikaskuntza prozesuan ere nolako eragina duen aztertzea.	Hezkuntza inklusiboa, berdintasunekoa eta kalitatekoa ziurtatzea, eta ikasteko aukerak sustatzea gizaki guztientzat bizitza guztian zehar.
Emozioen kudeaketan eta talde lanean oinarrituta, ikasgelan lantzeko aproposak edo eraginkorrak diren metodoak aurkeztea.	Generoen arteko berdintasuna lortzea, eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea.
Musikaren bitartez enpatia nola landu daitekeen eta honek ikasleengan eduki dezakeen eragina aztertzea.	Gizarte justu, baketsu eta inklusiboak bultzatzea.



### 3. MARKO TEORIKOA

#### 3. 1. Adimen emozionala

Gure begirada hezkuntza gaira bideratzean, emozioak eta horri lotutako kontzeptuak etengabe entzuten dira. Horrekin batera, adimenak badu ideia horietan sartzeko eta elkarrekin aritzeko ohitura. Bi hitz horiek,aldi berean, berezko esanahia duen kontzeptua osatzen dute: adimen emozionala.

Eva María Arrabal Martín-en hitzetan, aipatutako kontzeptu honek emozioen onarpena eta kudeaketa kontzienterako gaitasunari dagokio, hauek gure bizitzan zehar ematen ditugun pausoetan eta hartzen ditugun erabakietan duten garrantziaz jabetuta<sup>1</sup>. Orain dela gutxi arte, gure erabakietan soilik gure adimen-koizienteak eragina zuela uste zen. Gaur egun, ordea, emozioek egunero ematen ditugun eta etorkizunean emango ditugun pauso zein erabaki guztietan eragina izango dutela ezagutzen dugu (Arrabal, 2018, 8. or.). Kontzeptu hau, aldiz, aspaldi definitua izan zen, 1990. urtean, hain zuzen ere. Yale Unibertsitateko irakasle zen Peter Salovey eta Jhon Mayer-ek proposatutako kontzeptua da, prozesu moldakorretan zein adimen-prozesuetan emozioek duten garrantzia azpimarratzeko helburuarekin (Olvera, 2000, 15. or.). Honela definitu zuten bi irakasle hauek adimen emozionala: gainontzekoen emozioak zein emozio propioak kudeatzeko, haien artean bereizteko eta erregulatzeko gaitasuna, jasotako informazioa arazoak konpontzeko helburuarekin erabilita<sup>2</sup>. 1998an, ordea, Yolanda Olverak *Inteligencia emocional* liburuan aipatzen duen bezala (15. or.), hainbat ikerketa egin ondoren, Olvera, Domínguez eta Cruz-ek bestelako definizio bat eman zioten adimen emozionalari, izan ere, jarrera eta emozioekin lotutako zazpi gaitasun betetzeko eta zaintzeko gaitasunatzat definitu zuten.

##### 3. 1. 1. Adimen emozionalaren barneko gaitasunak

Behin kontzeptuaren definizioa ezagututa, honek dituen zenbait elementu edo adimen emozional motak aipatuko dira. Goleman-ek (1996, Balsera eta Gallego-k aipatua, 2010, 24. or.), adimen emozionalak biltzen zituen bost gaitasun ezberdin sailkatu zituen: autokontzientzia, autokontrola, automotibazioa, enpatia eta gaitasun sozialak. Horiek guztiak emozio zein sentimenduekin lotutako gaitasunak dira. Autokontzientiari esker, gure sentimenduak

---

1 Definizio hau *Inteligencia Emocional* liburutik aterata dago: “La inteligencia emocional es la capacidad de la aceptación y la gestión consciente de las emociones teniendo en cuenta la importancia que tienen en todas las decisiones y pasos que damos durante nuestra vida, aunque no seamos conscientes de ello.” (Arrabal, 2018, 7. or.).

2 Honako definizioa *Inteligencia emocional* liburutik aterata dago: “La habilidad para monitorear los sentimientos y las emociones propias y las de los demás, para discriminar entre ellas y regularlas, utilizando esta información para solucionar los problemas.” (Olvera, 2000, 15. or.).

identifikatzeko gai gara eta Goleman-en ustez, gainontzeko gaitasun emozionalen oinarria da. Autokontrolari buruz hitz egitean, ordea, sentimendu horiek kontrolatzeko eta momentu bakoitzean testuingurura moldatzeko gaitasunari egiten diogu erreferentzia. Sentimenduak kontrolatzeko gaitasunari lotuta, lortu nahi duguna lortzeko motibazioa bereganatzeko gaitasuna da aipatzen den hirugarren gaitasuna; automotibazioa, hain zuzen ere.

Lehenengo hiru gaitasun hauek norberaren sentimenduetan oinarritzen diren aldera, aipatutako azkeneko bi gaitasunek gainontzeko inguruko pertsonen emozioekin dute lotura. Enpatiari buruz hitz egiten dugunean, gure inguruko jendearen emozioak ezagutzeko, interpretatzeko eta horiek kontuan izateko gaitasunari buruz ari gara. Beraz, Francisco J. Balsera eta Domingo J. Gallego-ren lanean aipatzen den bezala (2010, 25. or.), autokontrola eta enpatia garatzeak pertsonetikiko harremanak hobetzen ditu; hau da, gaitasun sozialak.

### 3. 2. Enpatia

Behin adimen emozionalen barneko gaitasunak ezagututa, enpatian oinarrituko da lan hau, bereziki. Modu laburrean esanda, “gainontzekoen azalean kokatzea, hori da enpatia” (Moya, 2018, 3. or.). Autore honek idatzitako liburuan aipatzen den moduan, enpatia ideien mundutik zein emozioen aldetik jendearen azalean kokatzeari dagokio; hau da, pentsatzen duguna, besteen perspektiba baloratzean edo beste pertsona batzuei gertatzen zaienaren arabera nola sentitzen garen<sup>3</sup>. Horrek guztiak definituko luke enpatia.

Hala ere, definizio ezberdin ugari jaso ditu kontzeptu honek, izan ere, autore askok modu zehatzean definitu nahiean ibili dira eta jarraian, horietako batzuk aipatuko dira. Hasteko, Eisenberg eta Strayer-ek (1992), Sáenz-ek aipatua (2017), honela definitzen zuten enpatia: “beste pertsona baten egoera emozionalaren ondorioz sortutako erantzun emozionala eta pertsona horren egoerarekin bat egiten duena”<sup>4</sup>. Modu honetan, emozioak partekatzen ditugu eta pertsona ezberdinekin sentimendu berdinak bizitzen ditugu zenbait eragile edo kodeei esker (Eisenberg eta Strayer, 1992, Sáenz-ek aipatua, 2017, 4. or.).

Bestalde, Javier Sáenz-en lanean (2017, 4. or.), beste autore batzuen hitzak aipatzen dira: López, Carpintero, del Campo, Lázaro eta Soriano autoreena, hain zuzen ere. Hauen ustetan, besteen

---

3 Enpatiaren definizio hau *La empatía: Entenderla para entender a los demás* liburutik aterata dago: “(...) hacerlo tanto desde el mundo de las ideas, con lo que pensamos o tomando la perspectiva de otra persona, como desde el de las emociones, es decir, de cómo nos sentimos ante lo que ocurre a los demás” (Moya, 2018, 3. or.).

4 Javier Sáenz Giménez-en lanetik (2017, 4. or.) ateratako informazioa: “Según Eisenberg y Strayer (1992), “definimos empatía como una respuesta emocional que brota del estado emocional de otro y que es congruente con ese estado emocional del otro” (p. 15).”.

azalean jarri eta sentimenduak partekatzearen ideiarekin batera, pertsonak laguntzeko edo ongi sentiarazteko gaitasuna azpimarratzen dute (2006) eta horrekin batera, harreman mota ezberdinetan (interpersonean, profesionalean zein giza-harremanetan) modu zuzenean eragiten duenaren ideian oinarritzen dira.

### **3. 2. 1. Enpatia motak**

Enpatia sailkatzerako orduan, bi sailkapen ezberdin egiten ditu Carpintero-k (2015) beste autoreekin batera idatzitako liburuan eta bi sailkapen horiek aztertuko dira orain.

#### **3. 2. 1. 1. Alderdi edo osagai nagusiaren arabera**

- **Enpatia nagusiki kognitiboa**

Enpatia mota honen bitartez, beste pertsona batzuen sentimenduak ezagutzeko eta identifikatzeko gaitasuna garatzen da. Era honetan, besteen azalean kokatzea errazagoa da, baina honek ez du zertan pertsona horren egoeran emozionalki barneratzea eragin beharrik. Gainontzekoen sentimenduak ezagutzen duenak, bere mesederako erabili dezake egoera eta beraz, pertsona horri ez dio axola besteen egoera emozionala (Carpintero, 2015, Sáenz-ek aipatua, 2017, 6. or.).

- **Enpatia emozionala**

Aurrekoarekin konparatuta, enpatia mota honek beste pertsona batzuen egoera emozionalean inplikatzeko dakar. Honek, gainontzekoen sentimenduak ulertu eta identifikatzeaz gain, pertsona horrekin batera sentimendu horiek bereganatzea eta guk ere sentiaraztea eragin dezake. Horregatik, lotura zuzena dauka harreman interpersonean estuekin, izan ere, Carpintero-k (2015, Sáenz-ek aipatua, 2017, 6. or.), azaldu bezala, harreman estuko pertsonen arteko enpatia emozionalak bata besteari laguntzea eta egoera ezberdinetan babesa transmititzea bilatzen du.

Horretaz gain, enpatia emozionala lantzeak eta garatzeak hezkuntza-sisteman dauden arazo ugari landu, hobetu edo konpontzeko faktore esanguratsua dela aipatzen du Sáenz-ek (2017, 6. or.) eta ikastetxeetan lantzearen alde egiten du:

La empatía de este tipo incrementa la conciencia y nos predispone ayudar a los demás, aspectos esenciales en el establecimiento de un buen clima escolar, uno de nuestros principales propósitos. Por todo esto, este segundo tipo es el que debemos trabajar en la escuela... (6. or.)

### **3. 2. 1. 2. Izaeraren arabera**

- **Ahalmenezko enpatia**

Enpatia mota honek pertsona bakoitzak enpatia izateko edo garatzeko duen gaitasunari egiten dio erreferentzia. Pertsono orok ditugu gaitasun maila ezberdinak eta beraz, enpatia mailari dagokionez, berdina gertatzen da. Pertsona batzuk enpatia maila altuagoa izango dute beste batzuk baino, eta hori, beste gaitasun askorekin gertatzen den bezala, hobetu eta indartu daiteke (Carpintero, 2015, Sáenz-ek aipatua, 2017, 7. or.).

- **Egoeraren arabeko enpatia**

Izenak berak esaten duen bezala, pertsona baten enpatia gaitasuna eraginda suertatu daiteke egoeraren arabera; hau da, nahiz eta pertsona bat oso enpatikoa izan, bere pentsamendu edo bizipenengatik egoera batzuetan beste batzuetan baino enpatia gehiago garatu dezake (Carpintero, 2015, Sáenz-ek aipatua, 2017, 7. or.). Adibidez, testuinguru matxista batean hezi eta bizi izan den pertsona batek enpatia sentitu dezake egoera zaila bizitzen duen lagun batengatik, baina agian eraso matxista bat jasan duen emakume batengatik ez, ordea.

Hori dela eta, Sáenz-ek bere lanean Carpintero-ren (2015) hurrengo hitzak azpimarratzen ditu: “Debemos enseñar a potenciar las influencias positivas y a reducir las negativas. La intervención educativa en este caso debe ir enfocada a alcanzar la respuesta óptima que cada persona pueda dar, generalizándola a todas las situaciones posibles” (2017, 7. or.).

### **3. 2. 2. Enpatiaren garapen faseak**

Sáenz-en lanean (2017, 8. or.) Hoffman-ek ezarritako enpatia eta garapen moralaren arteko lotura aipatzen da. Honekin batera, enpatiaren garapen fase ezberdinek osatzen duten eskema bat landu zuen, beste pertsona baten ondoezaren aurreko erantzun afektiboan oinarrituta (Eisemberg eta Strayer, 1992, ,Barciero-k aipatua, 2016). Hauek dira azaldutako lau garapen faseak:

- **Enpatia globala**

0 eta 12 bitarteko hilabeteetan zehar garatzen da. Adin horrekin umeak ez du beste pertsona baten identitate ezberdina ulertzeko gaitasunik eta beraz, gainontzekoen ezbeharren aurrean, berari gertatuko balitz bezala jokatzeko du, haren sentimenduak barneratu eta bereak egingo balitu bezala.

- **Enpatia “egozentrikoa”**

Garapen fase hau urte eta bi urte eta erdiko umeek garatzen dute. Adin honetan zehar, umeak badaki bere identitatea banatzen eta ezberdintzen beste pertsona batzuekin konparatuta. Hortaz, ez ditu besteen sentimenduak bereak egiten, inoren egoera emozionala eta berea bereizten baitaki. Hala ere, ez da gainontzekoen sentimendu zein emozioen zergatia ulertzeko gai.

- **Beste norbaiten sentimenduekiko enpatia**

Bi urte eta erdi eta hamabi urte bitarteko fasea da honako hau. Adin tarte horretan, inoren egoera emozionala bakoitzarenaren desberdina dela ulertzeko gai da haurra. Hori dela eta, beste pertsona batzuen sentimenduen zergatia ulertzeko gaitasuna garatzen da eta hizkuntzari esker, sentimendu ezberdin ugari ezagutu eta esperimentatzen ditu haurrak.

- **Inoren ezbeharrarekiko enpatia**

Azkeneko fase hau hamabi urtetatik aurrera garatzen hasten da. Enpatia garapen fase honetan zehar, ondoan dauden pertsonen egoera emozionala ulertu eta horren azalean jartzeaz gain, ezagutzen ez diren edo momentuan gertu ez dauden pertsonetikiko enpatia pizten da. Horren ondorioz, pertsona horien sentimenduak eta egoera emozionalak momentukoak ez direla eta denboran zehar iraun dezaketela ulertu eta era berean, beste testuinguru ezberdineko eta ezezagunak izan daitezkeen pertsonetikiko enpatia garatzen da.

### **3. 2. 3. Garapen enpatikoa**

Enpatia, aipatu den moduan, norbanakoaren zein beste pertsona batzuen sentimenduak ezagutu eta identifikatzeko gaitasun sozialekin bat dator eta hauek esperientzia zein ikaskuntzaren ondorioz lortutako ideia, sentimendu, balore eta sinesmenen bidez garatzen dira (Barrea Gutierrez eta Valdospin Moran, 2017, Rubiano-k aipatua, 2020, 35. or.). Era berean, autore hauek aipatutako gaitasun sozialen honako definizioa ematen dute: pertsonok ditugun giza portaerak dira, beste pertsona batzuekin eratutako interakzioei mesede egiten dietenak.<sup>5</sup>

Portaera hauek dituzten ezaugarri nagusien artean, ikasitako izaera nagusitzen da eta horrek, egoera edo testuinguru ezberdinetan nola jokatu eta nola erantzuteko gaitasuna garatzeko aukera suposatzen du. Beraz, portaera sozialak ikasi badaitezke, eraldatu ere egin daitezke (Lacunza, 2012, Rubiano-k aipatua, 2020, 35. or.). Ondorioz, gaitasun sozialak eta enpatia hezkuntza zein moldaketaren bitartez garatzen den eskuratutako gaitasun moduan ikasi daitezke, izan ere, gizakiok ikasteko trebetasun handia daukagu (Castillo Costa, Sonia María del Carmen; Carrion Coronel eta Maria Jose, 2016, Rubiano-k aipatua, 2020, 36. or.). Bestalde, Ellis Ormrod-ek (2005) aipatzen zuen moduan, norbanakoaren ikasteko aukera dimentsio guztietara hedatzen da (hau da, dimentsio kognitiboa, emozionala, morala, etab.), izan ere, prozesu horren bitartez gaitasunak zein ezagutza berriez gain, balore, jarrera eta erreakzio emozionalak ere barneratzen ditugu (Rubiano-k aipatua,

---

<sup>5</sup> Definizio hau Nathaly Rubiano-k 2020an argitaratutako graduko proiektutik aterata dago: "(...) son comportamientos de tipo social disponibles en el repertorio de una persona, que contribuyen a su competencia social, favoreciendo la efectividad de las interacciones que éste establece con los demás." (35. or.).

2020, 36. or.). Aipatutako guztia dela eta, Nathaly Rubiano-k esaten duen bezala, “...*la empatía como habilidad socioemocional puede ser enseñada y existen medios idóneos para lograrlo*” (2020, 36. or.).

### **3. 2. 4. Eskola-klima eta empatia**

Jakina den moduan, hurrek ordu asko igarotzen dituzte eskolan, egunak dituen ordu ia gehienak bertan eman behar baitituzte. Hori dela eta, bertan bizitako esperientziek eta bizipenek haurren pentsatzeko eran eta jarreran eragin handia daukate (Feldman, 2008, Rubiano-k aipatua, 2020, 47. or.).

Eskola-klimak haurren garapen sozioemozionala areagotu edo geldiarazi dezake. Kontzeptu horrek instituzio bateko kideek irakasle, ikasle, familia eta ingurugiroaren arteko erlazio interpertsonal eta dinamikei buruz duten pertzeptzioari egiten dio erreferentzia<sup>6</sup> (Mena eta Valdés, 2008, Rubiano-k aipatua, 2020, 47. or.).

Laburbilduz, empatia eta eskola-klimaren arteko erlazioa existitzen dela esan daiteke. Testuinguru osasungarri zein positiboan hezitzen diren hurrek gaitasun hau garatzeko aukera ugari dituzte. Aldiz, jarrera bortitzak zein antisozialak eragiten dituzten eskolako dinamika eta empatia faltaren arteko erlazioa ere hauteman daiteke eta jarrera horietan, era berean, irakasle zein ikasleen arteko elkarrekintza ezkorrek dute eragin zuzena (Moreno Ruiz, Estévez López, Murgui Pérez eta Musitu Ochoa, 2009, Rubiano-k aipatua, 2020, 48.or.).

#### **3. 2. 4. 1. Empatia eskolan lantzearen onurak**

Gaur egun gero eta gizarte kulturantzagoan bizi gara eta horrela izanda, tolerantzia eta errespetoa bermatzea ezinbestekoa da. Hori dela eta, balore horiek eskolan lantzea eta sustatzea beharrezkoa da eta enpatiak paper garrantzitsua betetzen du prozesu horretan, ingurukoak baloratu eta haien egoera ulertzeko gai izanez gero, elkar errespetatzeko gaitasun handiagoa garatzen baitugu (López, 2006, Sáenz-ek aipatua, 2017, 22. or.).

Bestalde, Ortega-k (1998, Sáenz-ek aipatua, 2017, 24. or.) bullying-aren aurkako prozesuan enpatiak duen garrantzia azpimarratzen du. Haur askok ez dute egoera hauetan biktima diren ikasleen alde laguntzarik eskaintzen haiek ere biktima bihurtuko direnaren beldur. Hala ere, biktima laguntzeko prest dauden haurrak badaudela eta horiek empatia maila altua dutela defendatzen du Ortegak, empatia afektibo edo emozional maila altua, hain zuzen ere.

---

<sup>6</sup> Nathaly Rubiano-k 2020an argitaratutako gradu proiektutik ateratako definizioa: “(...) hace referencia a la percepción que tienen los miembros de una institución acerca de las relaciones interpersonales y las dinámicas que acontecen entre profesores, estudiantes, familia y entorno” (Mena eta Valdés, 2008, 47. or.).

Bullying-aren gaiari lotuta, ikastetxeetan bizitzen diren egoera horiek aurreikusteko eta horietan esku hartzeko hezkuntza programa edo proposamen askok, enpatia lantzeak duen garrantzia azpimarratu eta horretan oinarritzen dira, enpatia eskola-jazarpenaren kontrako gudan oinarritzko elementu bezala izendatua (Ortega, 1998, Sáenz-ek aipatua, 2017, 25.or).

### **3. 3. Musika enpatia lantzeko baliabide gisa**

Sonia E. Rodriguez psikologoak musika entzuteak enpatia areagotu dezakeela aztertu eta azaltzen duen estudio bat aipatzen du 2017an argitaratutako artikuluan. Bertan, musika entzuteak prozesu kognitibo zein emozionala garatzeak eskatzen duela azaltzen du, enpatiak bezala.

Baieztape horrekin lotura duen adimen musikalaren kontzeptua azalduko da jarraian. Honek pertsonok musika irudi ezberdinak ikusi, aztertu, eraldatu eta adierazteko dugun gaitasunari egiten dio erreferentzia. Hauen artean musika obra baten erritmo, tonu edo melodia, tinbrea edota kolorearekiko sentsibilitatea daude. Musika hiru ikuspuntu ezberdinetan oinarrituta uler daiteke: forma edo itxura aldetik, ikuspegi formaletik edo biak.<sup>7</sup>

Musika eta emozio sistemaren arteko erlazioari dagokionez, Custodio eta Cano-Campos-ek 2017an aztertu zutenaren arabera, musikak burmuineko sari mekanismoak aktibatu egiten ditu (Rubiano-k aipatua, 2020, 51. or.). Mekanismo horiek elikatzeak edo drogarekiko zein bestelako menpekotasunak martxan jartzen ditu.

Emozio zein garunarekin duen erlazioa aztertuta, honakoa ondorioztatu daiteke:

...la participación en actividades musicales puede ayudar a las niñas y los niños a mejorar las habilidades en distintas áreas de aprendizaje como el razonamiento y la resolución de problemas, pensamiento lateral, memoria, habilidades sociales y trabajo en equipo” (Kraus eta Chandrasekaran, 2010, Rubiano-k aipatua, 2020, 52. or.).

Horretaz gain, musika lantzearen eta enpatia garatzearen artean dagoen loturan sakonduta, ondorengoa egiaztatu da: oso enpatikoak diren pertsonak eragin edo inplikazio handiagoa izaten dute giza informazioa jasotzean gustuko duten musika entzuten dutenean. Honen ondorioz ikus daiteke enpatia garatzeko eta musika aztertze beharrezkoak ditugun garuneko informazio sareek lotura zuzena dutela (Wallmark, Deblieck eta Iacoboni, 2018, Rubiano-k aipatua, 2020, 52. or.).

---

7 Nathaly Rubiano-k argitaratutako lanetik ateratako definizioa: “capacidad de percibir, discriminar, transformar y expresar las formas musicales. Esta incluye la sensibilidad al ritmo, el tono o la melodía, y al timbre o color de una pieza musical. Se puede entender la música desde una perspectiva figural (global, intuitiva), formal (analítica, técnica), o ambas” (Armstrong, 2017, Rubiano-k aipatua, 2020, 50. or.).

## 4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

### 4. 1. Sarrera

Gaur egun, ikastetxeetan egoera ezberdin asko bizitzen dituzten ikasleak topatzea da ohikoena: bai familiagatik, bai baliabideengatik edota egoera psikologikoagatik ere. Hori dela eta, oso garrantzitsua da ikasle bakoitza kontuan hartzea eta haren emozio zein sentimenduak identifikatzen jakitea. Honetarako, enpatia lantzea beharrezkoa da, izan ere, irakasleek ikasleekiko erakutsi behar duten errespetua zein gertutasunaz gain, ikasleen arteko elkartasuna bultzatzeko derrigorrez landu beharreko balorea da enpatia.

Proposamen Didaktiko hau Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleei bideratuta dago eta honetan proposatutako jarduera zein ariketen bitartez, aipatutako enpatia lantzea izango da helburu nagusia, hain zuzen ere. Jarduerak zein Unitate Didaktiko osoa prestatzeko, Nafarroako Lehen Hezkuntzako 60/2014 Foru Dekretua oinarritzat hartu da eta bi aste iraungo dituen proposamena da.

Esan bezala, Curriculum Ofizialean oinarritutako lana da, izan ere, bertan aipatzen diren zenbait ideia izan dira lan honen oinarri eta euskarriak. Alde batetik, arretaren fokua haur bakoitzarengan jarri behar dela aipatzen da behin eta berriz, edozein direla ere haurraren gizarte jatorria, ingurua, zailtasunak, etab. Horregatik, hemen proposatuko diren jarduera eta ekintza guztietan garrantzi handia emango zaio ikasle bakoitzaren lan prozesuaren jarraipenari eta era berean, honek eskatzen duen ikasleekiko enpatiari. Modu honetan, ikaskideen arteko enpatia lantzeaz gain, irakasleak ikasleekiko zaindu eta landu behar duen enpatia ere garatzeko prozesutzat har daiteke.

Bestetik, Curriculumean aipatzen diren etapako helburuak direnen artean, gaiari lotuta dauden eta jarduerak aurrera eramateko nahitaez kontuan hartu beharko diren bi hauek izango dira bi asteetan zehar oinarri izango direnak:

- Bizikidetzaren balioak eta arauak ezagutu eta preziatzea, haien arabera jokatzeko ikasi, herritar gisa jarduteko prestatu eta giza eskubideak eta gizarte demokratiko batek berezko duen aniztasuna errespetatzea.
- Nortasunaren arlo guztietan eta besteekiko harremanetan ahalmen afektiboak eta indarkeriaren, edonolako aurreiritzi eta diskriminazioen eta estereotipo sexisten aurkako jarrera garatzea.

Laburbilduz, Nafarroako Lehen Hezkuntzako Curriculum Ofiziala sakonki aztertuta, bertan gehien bat talde kohesioari, errespetuari, ikasleek balioak integratzeari, aniztasuna zaintzeari eta bizikidetzari indarra eta garrantzia ematen zaiola ikus daiteke. Hau guztia bermatzeko, bai ikasleek eta baita irakasleek ere enpatia garatu eta lantzea beharrezkoa da. Horregatik da Unitate Didaktiko honen gaia eta landu nahi den helburu nagusia.



## 4. 2. Gaiaren justifikazioa

Aipatu bezala, testuinguru ezberdin ugariren isla dira ikastetxeak eta emozioak zein sentimenduak lantzea eta hezkuntza sistema horietan oinarritzea gero eta indar handiagoa hartzen ari duen gaia da. Aspaldi horren beharra ikusten dut nik eta graduako praktikak egitearekin batera, irakasleen iritzia jaso eta zenbait datuen bilketaren ondorioz landu beharreko gaitzat hartu nuen honakoa: enpatia.

Era berean, musikako praktikak egiteko aukera izan dut eta beraz, musikako irakaslea izatea gustatuko litzaidakeenez, enpatiaren lanketa musikarekin batera egitea bururatu zitzaidan. Baliabide eta modu ezberdin asko daude prozesu hau aurrera eramateko eta etorkizunean baliagarria izango zaidalakoan, elkarrekin lantzeko eta garatzeko gai egokia dela uste dut.

## 4. 3. Helburuak

Ikus daitekeen moduan, proposamen didaktiko honen helburuak oso argiak dira eta jarraian azalduko diren jarduera guztietan oso zehaztuak daude. Hauek dira, beraz, unitate didaktiko hau aurrera eramanda bete eta lortu beharko liratekeen helburuak:

- Prestatutako jarduera zein ariketen bitartez ikasleen arteko talde kohesioa eta elkarlana bultzatzea.
- Ikaskideen emozio zein sentimenduak ohartzeko gai diren ikasle eta irakasleak garatu eta horiekiko kezka sorraraztea.
- Adiskidetasuna eta elkarrekiko errespetua bermatzea eta horren garrantzia barneratzea.
- Emozio zein sentimenduetan oinarritutako jardueretan enpatiaren zeharkako lanketa sakona egitea eta horri buruzko hausnarketak bultzatzea.
- Musika enpatia lantzeko baliabide gisa lantzea.

## 4. 4. Edukiak

Jarraian azalduta agertuko diren jarduera zein ariketen bitartez, hauek dira ikasleekin landuko diren eduki edo gaiak:

- Elkarlana eta adiskidetasuna
- Elkarrekiko errespetua
- Aniztasuna
- Emozio zein sentimenduen lanketa
- Enpatiaren garrantzia eta beharra
- Iritzi kritikoa eta hausnarketarako gaitasuna

Horiek guztietaz gain, musika eta baliabide digitalak derrigorrez erabili beharko dira jarduerak aurrera eraman ahal izateko. Hortaz, garrantzitsua izango da bai instrumentu musikalak eta gailu digitalak erabiltzeko aukera edukitzea.

#### **4. 5. Gaitasunak**

Nafarroako Lehen Hezkuntzako Curriculum Ofizialean oinarrituta egonda, bertan aipatzen eta garrantzi handikoak diren hurrengo gaitasunak lantzeari ekingo zaio:

- Hizkuntza komunikazioa
- Gaitasun sozial eta zibikoak
- Ekimena eta ekintzailtza

Aipatu dudan bezala, ikasleen arteko harremanak errespetuz lantzea unitate honen oinarri bat izango da, hortaz, derrigorrez ikasle guztien arteko ekimena eta ekintzailtza garatzea izango da gure helburu nagusienetarikoa. Era berean, elkarren arteko lankidetzari indar handia emango diogunez, elkarrekin aritzeko, errespetatzeko, ongi tratatzeko eta bakoitzaren emozio zein sentimenduak kontuan hartzeko beharrezkoa izango da aipatutako gaitasun sozial eta zibikoak lantzea. Hauek garatzeko zailtasunen bat egonda, jarduerekin jorratu nahi den enpatia falta sumatuko genuke, hain zuzen ere.

Hori guztiaz gain, ikasleen eta baita irakasle zein ikasleen arteko komunikazio egokia egotearen beharra agerian dago. Jardueretan ikusiko denaren arabera, elkarren artean moldatzeko eta suertatutako oztopoak ekiditu edo konpontzerako orduan, errespetuarekin batera hizkuntzak garrantzi handia izango du. Hori dela eta, hizkuntza komunikazioa unitate didaktiko honen beste gairak beharrezko gaitasuna da.

Curriculumean behin eta berriz errepikatzen diren oinarriak lehenago aipatu diren modura (talde kohesioa, errespetua, aniztasuna...), enpatia ere landu beharrezko balioa dela azpimarratu nahi dela hauteman daiteke. Baina horretarako, garrantzitsua da ikasleen arteko harremanak zaintzea eta hori lortzeko, komunikazioak indar handia dauka. Eta ez soilik ikasleen arteko komunikazioa, baizik eta ikasle-irakasleen arteko komunikazioa ere. Hori dela eta, Unitate Didaktiko honen gaitasunetako bat hizkuntzaren komunikazioa izan behar du, bai edo bai. Horregatik, jarraian azalduta dauden jarduera eta ariketetan elkarren arteko komunikazioa modu eraginkorrean lantzea horiek aurrera eramateko funtsezkoa izango da, hain zuzen ere.

#### 4. 6. Denboralizazioa

Hasieran aipatu den bezala, bi aste iraungo dituen proposamen didaktikoa da honako hau. Horretarako, 5 saio edo jarduera ezberdin eta tailer motz bat proposatuko dira, horietako bakoitza asteko egun batean lantzeko. Lehenengo lau jarduerak lehenengo astean zehar landuko dituzte eta bigarren astea, konposizio tailer batekin hasiko da eta bukatzeko, bosgarren jarduera bat egingo da. Ariketa bakoitzaren iraupena egun bakoitzean proposatutakoari eskaintzeko aukera edo baliabideen arabera moldatu daiteke baina printzipioz, saio bakarrean lantzeko pentsatuak daude; hau da, 45-50 minutu jarduera bakoitzeko (amaierakoa izan ezik).

#### 4. 7. Jarduerak

##### 4. 7. 1. Lehenengo astea

<b>LEHENENGO JARDUERA</b>	
<p>Ikasleei lau bideo musikal ezberdin aurkeztuko zaizkie. Bideo horietako bakoitzean emozio ezberdinak azaldu, espresatu edo abesten diren kantak ikusi eta entzuteko aukera izango dute. Kanta batek poza edo alaitasuna landuko du, beste batek tristura, hirugarren batek haserrea eta azkenekoak beldurra. Lau bideo horiek banan-banan entzun beharko dira, nahi den ordenean, eta horietako bakoitza entzun eta ikustean, horri buruz hitz egingo dute ikasleek. Horretarako, honako galderak planteatuko zaizkie: zer datorkizue burura abesti hau entzutean? Bertan kontatzen dena sentitu al duzue noizbait? Norbait datorkizue burura abesti honekin? Nola sentitu zarete entzuten zenuten bitartean? Eta orain?</p> <p>Jarduera honen bitartez, ikasleak haien taldekideek bizipen antzekoak izan dituztela ohartu daitezke eta modu honetan, bakoitzaren emozio zein sentimenduak gainontzekoek ere esperientzia berdinetan edo ezberdinetan bizi ditzaketela ikasteko modu erraza da. Era berean, ikaskideak sakonago ezagutzeko eta haien ahuleziak zein gustuko gauzak zeintzuk diren behatzeko oso jarduera egokia iruditzen zait, gainontzekoen sentimenduak ezagutzeko eta haiekiko enpatia bultzatzeko baliagarria dela uste baitut.</p>	
<b>TALDEKATZEA</b>	Ikasle guztiak elkarrekin, bakoitzaren txanda errespetatuz.
<b>IRAUPENA</b>	45-50 minutu
<b>MATERIALA</b>	Emozioak lantzeko erabiliko ditugun bideoak. Bideo horien adibide honako bi hauek izan daitezke: <a href="https://youtu.be/kH2KFT-04FI">https://youtu.be/kH2KFT-04FI</a> <a href="https://youtu.be/MAVnXYaWNyw">https://youtu.be/MAVnXYaWNyw</a>

### **Oharrak**

Jarduera honetarako, emozioak lantzen dituzten bideoak erabiltzea beharrezkoa da. Proposamen didaktiko honetarako aproposak diren baliabideak bilatzeari ekin diodanean, ordea, aurkitutako bideoak ez zaizkit egokiak iruditu. Are gehiago, euskarazko abesti edo bideoen bila ibili naiz eta oso gutxi ikusi ditut. Hori dela eta, adibideak sortzea erabaki dut, zeinetan nik asmatutako abestiak entzun eta ikus daitezke.

Horrela izanda, bi emozio ezberdinetan oinarritutako bi kanta asmatu ditut. Batak alaitasunari edo poztasunari egiten dio erreferentzia. Bertan, pozik bizi den ume baten istorio laburra eta sinplea kontatzen da, berari poztasuna sorrarazten dizkieten egoera edo jarduerak aipatuta. Beste kantak, ordea, tristuraren emozioa lantzen du. Honetan, pertsona batek bizitako esperientzia tristeak eta gogorak azalduta agertzen dira. Modu honetan, bideo hauek ikusita eta kantak entzunda, erraza eta egokia izango da ikasleei haiek bizitako esperientziei buruz galdetzea eta hauetan agertzen diren egoerekin konparatzeko eskatzea.

Aipatu beharra daukat, jardueran azalduta dagoen moduan, beste bi emozioak lantzeko bideoak bilatu beharko litzatekeela jarduera guztiz bukatutzat emateko. Edo nik egin dudak bezala, bi kanta sortu. Dena delakoa, aproposak eta ulertzeko edo lantzeko errazak izan behar dira, emozio bakoitza modu egokian azalduta eta adierazita dagoelarik.

#### **BIGARREN JARDUERA**

Jarduera honetarako, ikasleak lau taldetan banatuko ditugu. Talde bakoitzak gela osoaren aurrean jartzeko aukera izango du, aurretik ezer ez azaldu gabe. Zutik eta gela osoaren aurrean jarriko den lehenengo taldea ilara batean kokatuko dugu. Behin ilara argi bat sortuta eta beste ezer azaldu gabe, gainontzeko ikasleei (eserita daudenei) begiak ixteko edo atzera begiratzeko eskatuko zaie. Momentu horretan, ilarako posizioak aldatu egingo ditugu eta zutik dauden ikasleak alde batetik bestera mugituko ditugu haien hasierako lekua aldatuz. Hori eginda eta berriz ilara bat lortuta, gainontzeko ikaslidei buelta emateko edo begiak irekitzeko eskatuko diegu eta momentu batez isilik geldituko gara, ezer ez galdetu gabe. Ikasleren batek aldaketako sumatuz gero baimena emango diogu hitz egiteko baina inork ez balu aldaketa sumatuko, orduan bai galdera hau planteatuko genukeela: aldaketaren bat sumatu duzue begiak itxi aurretik zegoen egoerarekin konparatuta?

Prozesu hau lau aldiz errepikatu beharko dugu, lau ikasle taldeekin, hain zuzen ere. Baina horietako bakoitzean aldaketak ezberdinak izango dira. Gelaren aurrean kokatuko den bigarren taldeko ikasle bakoitzari betebeharrak emango zaio: musika instrumentu bat jotzen egongo balitz bezala mimika egitea (batek pianoa jotzen duela imitatu beharko du, besteak tronpeta, beste batek

gitarra...). Mimika egin eta 10-20 segundu pasa ondoren, gainontzekoek begiak itxi eta "protagonistak" direnei instrumentuen mimika elkarren artean aldatzeko eskatuko zaie. Behin bakoitzak zer instrumentu joko duen erabakita, ikaskideek begiak ireki eta aurreko taldearekin bezala, aldaketa edo sumatutakoari buruz hitz egiteko eta eztabaidatzeko denbora izango dugu.

Hirugarren taldeak, aurrekoaren prozesu bera jarraituko du baina oraingoan, ikasle protagonistek animalia ezberdinen soinuak interpretatuko dituzte batera. Gainontzekoek begiak ixtean, soinu horien trukaketa egingo dute haien artean (aldaketarik egingo ez duen ikaslerik egotea ere komenigarria litzateke). Era berean, posizioz aldatzeko aukera ere eskainiko zaie. Azkeneko taldeak, ordea, arropa edo elementu txikiren aldaketak egingo ditu: pultsera bat, belarritako bat, jertsea, zapatillak...

Behin lau talde protagonistak gelaren aurretik pasatuta, guztion artean hausnarketa egitera bultzatuko ditugu ikasleak. Honen bitartez, ikasle asko egonda guztien beharrak, hitz egiteko nahiak edo galderak erantzutea zaila dela ohartarazi dezakegu, izan ere, askotan ikasleak irakasleengatik baztertuak edo gutxietsiak sentitu daitezke gela barruan. Baina egia da oso zaila dela ikasle bakoitza momentu oro kontuan hartzea eta hori da jarduera honen bitartez adierazi eta landu nahi dena. Gainera, gure begirada beste pertsona batzuetan oinarritzea eta gure inguruan gertatzen ari denaz ohartzearen garrantzia lantzeko aproposa da.

<b>TALDEKATZEA</b>	Lau taldetan banatuko dugu gela hasierako lau egoera ezberdinak antzestu edo jorrazteko. Amaierako hausnarketan, ordea, denon artean arituko gara hitz egiten eta eztabaidatzen.
<b>IRAUPENA</b>	45-50 minutu
<b>MATERIALA</b>	Ez da material berezirik behar.

### ***Bigarren jarduera praktikara eramanda***

- **Egingo dena eta horren hipotesiak**

Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako ikasle talde batekin jarduera hau aurrera eramatea erabaki dut, honen funtzionamendua nolakoa den ikusi ahal izateko, horretatik ondorioak ateratzeko eta gaizki ateraz gero, edo arazo asko suertatuz gero, jarduera nola hobetu daitekeen baloratzeko. Horretarako, 24 ikasle talde bat izanda, 6ko lau taldetan banatuko ditut ikasleak eta horietako bakoitza gainontzekoen aurrera aterako dut. Momentu horretan, beste hiru taldeei begiak isteko eskatu eta aurrean dauden ikasleei egin beharrekoa azalduko diet. Behin argi izanda, ikaskideek begiak ireki ahal izango dituzte eta jardueran azalduta dagoen bezala, zer den aldatu dena edo aldaketarik ikusi duten galdetuko diet. Lau taldeak aurretik pasatuta, hausnarketa txiki bat egingo

dugu denon artean, jarduera gustatu zaien edo ez adierazteko aukera izanda, zaila egin zaien azalduz eta antzeko hausnarketak eginez.

Modu honetan planteatuta, ez dut uste jarduera modu egokian aurrera eramateko zailtasun handiegirik egongo denik. Egotekotan, begiak isterakoan suertatu daitezkeela esango nuke, izan ere, haurrek ez begiratzeko eskatzean, tranpak egiteko eta begiratzeko ohitura izaten dute askotan. Horren ondorioz, ikasleen arteko liskarrak gerta daitezke. Bestalde, lehenengo maila izanda, amaieran egingo den hausnarketan, irakasleak (kasu honetan nik) eraman beharko du honen nondik-norakoa, ikasleak oso gaztetxoak iruditzen baitzaizkit. Dena den, uste dut hurrei bere buruaz gain, beste ikasleei arreta jartzeko eta bakoitzaren txanda errespetatzeari buruzko gogoeta egiteko baliagarria izango zaidala uste dut, amaierako hausnarketa ildo horretatik bideratuta.

- **Gertatutakoaren behaketa**

Esan bezala, lehenengo mailako ikasleekin landu dut jarduera hau eta espero nuena baino zailagoa izan da aurrera eramatea. Hasteko, espero nuen bezala, haur askok ez dituzte begiak itxi eta tranpak egiten saiatu dira. Horren ondorioz, liskar handiak suertatu dira gelan ikasleen artean, elkarri ez begiratzeko eta tranparik ez egiteko eskatuz, beti ere oihuka eta modu bortitzean. Hori dela eta, zenbait momentutan jarduera gelditu behar izan dugu liskar horiek nola konponduko genituzkeen galdetzeko.

Bestalde, talde “protagonista” zirenekin ere, zenbait arazo egon dira. Talde bati animalia ezberdinen soinua imitatzeke eskatzean, ikasle batek animalia hori ez zuela nahi adierazi dit, baizik eta bere ondokoari egokitutakoa. Momentu horretan, bi ikasleen arteko haserrea gertatu da eta hori konpontzeko, gustuko zuen beste animalia bat egokitu behar izan diot, baina kostata. Berdina gertatu da arropa aldatzerako orduan: talde horretako haur batek ez du bere ondokoarekin jertsea aldatu nahi izan. Hori konpontzeko ere, minutu batzuk eskaini behar izan ditugu taldea eta nire artean, gainontzeko ikasleak begiak irekitzeko irrikitan zeuden bitartean.

Bukatzeko, hainbat liskar egon direnez eta horiek konpontzeko denbora eskaini behar izan diogunez, amaierako hausnarketa egiteko ez dugu denbora luzerik eduki. Korrika eta presaka bakoitza bere tokian esertzeko eskatu diet (nahiz eta hasieran denon artean borobil handi bat egitea pentsatuta izan) eta ariketa gustuko izan duten edo ez galdetu diet. Baietz esan didate eta zaila iruditu zaien galdetzean, ezezko erantzuna jaso dut. Berrito errepikatzeko eskatu dute ikasle gehienek.

- **Ondorioak**

Gertatutakoa ikusita, ikasleek ongi pasatzeko eta arreta mantentzeko jarduera dela ondorioztatu dut. Hala ere, zenbait gauza aldatu egingo nituzke jardueraren oinarritzko helburua modu egokiagoan bete ahal izateko eta ikasleen arteko hausnarketan eta bizipenak eraginkorragoak izateko. Hasteko, ez nuke sei-zazpi urteko ikasleekin landuko, baizik eta unitate didaktikoa zuzenduta

dagoen bezala, zortzi-bederatzi urteko ikasleekin. Adin honetako ikasleek, hausnarketa sakonagoak egiteko gaitasuna edukitzeaz gain, haien artean suertatu daitezkeen liskarrak konpontzeko trebetasun handiagoak garatu dituzte eta horrek, denbora probestea eragingo luke.

Bestetik, uste dut jardueraren helburua lortu ahal izateko, hasieran ere nolabaiteko aurkezpen bat egitea beharrezkoa dela. Ikasleei zenbait galdera planteatu ahal zaizkie: uste duzue erraza dela ikasle asko gauden gela batean arreta mantentzea? gure ikaskideak nola sentitzen diren kontuan hartzen duzuela uste duzue? guk egiten dugunaz gain, gainontzekoek egiten dutenari arreta jartzeko ohitura dugu? Antzeko galderak eginez, gaiari lotutako aurreideia batzuk edukiko dituzte ikasleek eta beraz, amaierako hausnarketan, hasieran komentatutakoa eta jardueran zehar bizitakoa konparatzeko aukera izango dutela, horri buruzko gogoeta egingo duten bitartean.

Bukatzeko, liskarrak ekiditzeko zenbait gauza egingo nituzke: alde batetik, begiak isterako orduan tranparik ez egiteko, horren ordezkari ikaskideen aurrean dagoen taldeari gelatik ateratzeko eskatuko nioke eta bertan, bakoitzari azaldu egin beharrezkoa. Modu horretan gainontzeko ikasleek ez lukete tranparik egiteko aukerarik eta beraz, liskar horiek ekidituko genituzke. Era berean, egokitutakoarekin ados ez egotekotan, aurretik bestelako aukerak pentsatuta edukiko nituzke, arazo horiei buelta emateko zenbat eta denbora gutxiago erabiliz. Honekin, amaierako hausnarketa egiteko denbora nahikoa izango genuke eta beraz, jardueraren helburua betetzea errazagoa izango litzateke.

Laburbilduz, nire ustez, ikasleen arteko enpatia lantzen hasteko jarduera eraginkorra izan daiteke, beti ere modu egokian planteatuta. Amaierako hausnarketa, irakasleak gogoeta sakona egiteari bideratu dezake eta horretan, ikasleek hausnarketak egiteko aukera bikaina edukiko dute, gainontzekoei arreta eskaintzea garrantzitsua dela konturatuz. Horretaz gain, ikasleen arteko zenbait liskar edo arazo suertatu daitezkeela ikusita, horiek ere ikasleen arteko errespetua lantzeko oso baliagarriak izan daitezke, era berean enpatiarekin lotura zuzena duena.

#### **HIRUGARREN JARDUERA**

Ikasleen arteko elkarrekintza, errespetua eta enpatia bermatzea garrantzitsua den heinean, irakasle eta ikasleen arteko harremana estutu eta indartu behar da. Horretarako, rol-jolas bat eramango dugu aurrera hirugarren egun honetan. Irakasleak erabakitako saio batean ikasle guztiek irakaslearen papera hartzeko aukera izango dute. Banan-banan, gustuko duten edo aukeratzen duten abesti bat entzutera gonbidatuko dituzte haien ikaskideak irakaslearen rola betetz. Hau da, rol hori betetzen duten bitartean gelaren aurrean jarriko dira eta horretarako jarrera egokia bermatu beharko dute. Behin musika entzunda, ikasleei sentitu, bizi edo haien barrenean piztutako emozio zein sentimenduei buruz hitz egiteko aukera eskainiko diete, guztien arteko errespetua eta bakoitzaren txanda bermatzen dela gidatuz.

<p>Jarduera honen bitartez ikasle eta irakaslearen arteko harremanean sakondu nahi da, izan ere, ikasleak irakaslearen papera hartzen duten bitartean, irakasleak ikaslearen rola jokatu du eta beraz, haien bizipenak ere bereak bezalakoak sentitzen eta transmititzen ahalegindu beharko da. Erraza da gela batean ikasle zein irakaslearen arteko harremana hotza eta modu batean esanda, gertuko ez izatea. Horregatik, horrelako jardueren bitartez bakoitzaren rola ezagutzeko aukera eskaini eta haien arteko errespetua eta enpatia garatzeko aukera bikaina iruditzen zait.</p>	
<b>TALDEKATZEA</b>	Talde osoak elkarrekin jorratuko du, bakoitzaren txanda errespetatuta.
<b>IRAUPENA</b>	Moldagarria izan daiteke, izan ere, saio bakarrean egiteko moduan planteatu daiteke edo egun osoan zehar lantzeko eta rola aldatzeko aukera eskainiz.
<b>MATERIALA</b>	Musika ezberdinak entzuteko gailu digitalen bat beharrezkoa da: arbela digitala, ordenagailua...

<b>LAUGARREN JARDUERA</b>	
<p>Ariketa honetarako, ikasleak lau talde ezberdinetan banatuko ditugu. Talde bakoitzari musika instrumentu ezberdinak utziko dizkiogu, ikasle talde bakoitzak instrumentu ezberdinak izanik; hau da, talde batean bi triangelu utziko ditugu, beste batean bakarra eta beste bi taldeetan triangelurik ez (eta berdina egingo dugu beste instrumentuekin). Modu honetan, gerta daiteke talderen batek instrumentu bakoitzeko bana izatea eta beste batean, ordea, bi instrumentu ezberdin edukitzea soilik. Era berean, taldeko kideen arabera jokatzeko aprobetxatzea komenigarria litzateke; hau da, talderen batean ikasle bakoitzak instrumentu bana izateko aukerarik ez ematea.</p> <p>Behin instrumentuak banatuta, youtuben abesti ezagun baten bideoa jarriko dugu, zeinetan gorputz perkusioa lantzen den. Hasieran, gorputz atalekin, bideoan agertzen den bezala landuko dugu. Baina behin edo bitan eginda, hurrengo errepikapenetan talde bakoitzak dituen instrumentuekin interpretatzea eskatuko zaie. Ez diegu elkar trukatzeko aukerarik eskainiko eta bideoan agertzen diren gorputz atal bakoitzari instrumentu ezberdin bana egokituko diegu. Adibidez, txaloen orde, panderoan kolpe bat eman beharko du instrumentu hori duen ikasleak.</p> <p>Esan bezala, talde guztiek ez dituzte instrumentu guztiak jotzeko aukera izango eta beste taldeekin trukaketak egiteko aukerarik ez dutenez izango, haien artean moldatzeko erabakiak hartu beharko dituzte, ikasle guztiek abestia behar bezala interpretatzeko aukera izanik. Behin baino gehiagotan errepikatuko ditugu abesti ezberdinak instrumentuen aldaketak egin gabe (kanta ezberdinak proposatuko ditugu, jarraian azalduko den adibidearen antzekoak). Behin ikasle guztiek instrumentu ezberdinak eta kantaren parte izateko aukera eduki ondoren, taldeen artean hitz</p>	



egiteko, adosteko eta instrumentuen elkar trukaketak egiteko aukera eskainiko zaie. Jarduera bukatutzat emateko, guztiak batu eta hausnarketa egiteko denbora eskainiko zaie, sortutako arazo edo liskarrei buruz hitz egiteko eta pentsatzeko.

Jarduera honen bitartez enpatia lantzen da sakonki, izan ere, alde batetik, talde bateko kideen arteko errespetua eta lankidetzaz zaindu behar da derrigorrez, guztien parte hartzea bermatuz. Bestetik, azkeneko momentuan eskainitako instrumentuen elkar trukaketaren artean, taldeen arteko adostasunak, harremanak eta lankidetzaz lantzen da. Horretarako ere, taldekideen beharrak kontuan hartu beharko dituzte eta bakoitzaren nahiak alde batera utzita, talde guztien kideek instrumentu ezberdinak jotzeko aukera eskaini beharko dituzte jardueraren helburua talde guztiek abesti bera interpretatzeko gai izatea dela kontuan izanik.

<b>TALDEKATZEA</b>	Lau talde egingo dira kanta interpretatzeko. Amaieran, denok batera egingo dugu hausnarketa.
<b>IRAUPENA</b>	45-50 minutu inguru.
<b>MATERIALA</b>	Jarduera hau aurrera eraman ahal izateko perkusiozko instrumentu ezberdinak beharko dira: triangelua, marakak, panderoa, krotaloak...  Horretaz gain, gorputz perkusioa lantzen dituzten bideoak erabiliko ditugu eta horien adibide asko daude interneten. Honako hau adibide bat izan liteke: <a href="https://www.youtube.com/watch?v=uzXpvlRMog">https://www.youtube.com/watch?v=uzXpvlRMog</a>

#### 4. 7. 2. Bigarren astea

<b>KONPOSIZIO TAILERRA</b>	
Azkeneko jarduerari begira zuzendutako tailerra izango da hau. Honetarako, ikasleentzat ezaguna den abesti bat aukeratuko da ("Negua joan da ta", adibidez) eta horri letra aldatu beharko diote. Lortzeko, zenbait gomendio emango zaizkie: abestia atalka zatitzea (estrofak, estribilloa...), horietako bakoitza esaldietan banatzea eta horietako bakoitzak zenbat silaba dituen zenbatzea. Modu honetan, silaba kopuruen arabera esaldiak pentsatu beharko dituzte. Aurretik, ordea, abestiaren gaia izango dena erabakitzeko denbora eskainiko zaie eta behin hori aukeratuta, horri buruzko ideiak edo burura etortzen zaizkie lehenengo esaldiak esateko aukera izango dute. Horiek arbelean apuntatu eta ideia horiek aurrez aurre izanda, horiekin esaldi berriak eta silaba kopuru zehatzekin egiteko teknikak erakutsiko zaizkie: "eta" bezalako juntagailuak kendu edo gehitu, aditzak moztu edo eraldatu, sinonimoak bilatu...	
<b>TALDEKATZEA</b>	Guztion artean lantzeko tailerra izango da, baina zenbait esaldi osatzeko edo berriak egiteko lau-bost pertsonetako taldeetan batu

	daitezke eta horien artean ideiak elkar trukatu, gero talde osoari proposatzeko.
<b>IRAUPENA</b>	50 minutu inguru.
<b>MATERIALA</b>	Arbela erabiliko da ideiak apuntatzeko eta abestia entzuteko, ordenagailua baliatu daiteke edo zuzenean gitarra edo piano jo.

### ***Konposizio tailerra praktikara eramanda***

- **Egingo dena eta horren hipotesiak**

Honako tailer hau, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin jorratuko dut, irakasleak gela bakoitzari abesti bat sortzeko proposamena eskainiko diela baliatuta oso jarduera aproposa iruditzen baitzait. Honetarako, jardueran azaltzen den moduan, “Negua joan da ta” abestian oinarrituko naiz haiek sortu beharko duten letra berria idazterako orduan. Abesti honen akordeak gitarrarekin ikasiko ditut eta ikasleentzat dibertigarriagoa suertatzeko, nik joko dut abestia gitarrarekin zuzenean.

Abestiaren gaiak proposatzerako orduan, gai ezberdin asko agertuko direlakoan nago eta beraz, bat aukeratzeko bozketa bat egitea pentsatu dut. Era berean, ikasle guztien parte hartzea sustatu nahi dudanez, ikasle bakoitzari gaiarekin zerikusia duen esaldi bana pentsatzea eskatu diot eta modu horretan, abestiaren letra osatuko dituzten esaldi edo ideietan ikasle guztiek parte hartu izango dute nolabait. Horretaz gain, letra idazteko edo sortzeko ideiak eta trukoak eskainiko dizkiet ikasleei etengabe, beti ere haien parte harteari garrantzi handiena ematen, baina batez ere, blokeatuta sentitu daitezkeen ikasleei laguntza eskaintzeko.

- **Gertatutakoaren behaketa**

Jarduera entretenigarria eta ikasleentzat musika zein lankidetzat lantzeko eraginkorra suertatu da. Hasieran, abesti bat sortu behar genuela esatean, denetarikoa aurpegiak agertu izan dira gelan. Hala ere, amaieran sortutako piezarekin konforme eta pozik azaldu dira gehienak. Oso dinamikoa izan da prozesua eta tailerraren helburua zen ikasleen parte hartzea eta bakoitzaren ideiak kontuan hartu eta errespetatzea lortu egin dugu.

Gaia zein izango zen aukeratzeko ideia ugari agertu dira eta denen artean bat aukeratu dugu, gela batean bi ideien arteko lotura eginez. Ondoren, ideia eta esaldi bana adierazi dute ikasleek (batzuek ideia bat baino gehiago) eta arbelean apuntatu ditugu horiek denak. Horiei abestiaren forma emateko, behin eta berriz abestu egin dugu denek batera, kanta atal ezberdinetan banatuta. Momentu horretan ikasleak animatuagoak egon dira, izan ere, taldearen parte sentitu dira denon artean haien burua abesten ikusi baitute. Truko ezberdin asko erakutsi dizkiet ikasleei letra egiterako orduan (jardueraren azalpenean adierazitakoak, adibidez), eta nahiz eta ikasle batzuentzat beste

batzuentzat baino zailagoa suertatu, denek parte hartu dute elkarri lagunduz. Bestalde, abestiaren azkeneko esaldiak pentsatzeko, talde txikiak sortu ditugu horietako bakoitzak bi edo hiru esaldi sortzeko. Modu honetan, elkarren arteko errespetua bermatu da, ideia guztiak entzun eta horiek kontuan hartu behar izan dituztelako.

- **Ondorioak**







Tailer hau aurrera eraman eta gero, errespetua, taldekidetzeta eta era berean, enpatia lantzeko jarduera eraginkorra dela ondorioztatu dut. Ariketa honetan oso garrantzitsua da ikasleen parte hartzea sustatzea eta behin hori lortuta, ikasleek argi eduki behar dute guztien ideiak baliagarriak direla abesti bat sortzerako orduan. Horrekin batera, aipatu dudana bezala, ikasle batzuei zailagoa suertatu zaie tailerra eta beraz, lankidetzeta eta laguntasuna garatzeko oso aproposa iruditu zait.

<b>AMAIERAKO JARDUERA</b>	
<p>Proposamen didaktikoari amaiera emateko, jarduera guztietan zehar landutako elkarrekintza, errespetua eta enpatia oinarri izango dituen azkeneko ariketa hau aurrera eramango da. Ikasle guztiei etxetik instrumentu bana ekartzeko eskatuko zaie, berdina dio perkusiozkoa, haizezkoa edo harizkoa izan. Horretaz gain, ikastetxean eskuragarri dauden perkusiozko edo bestelako zenbait instrumentu ere erabiltzeko aukera izango dute. Horiek guztiekin, denon artean abesti berri bat asmatu beharko dute. Horretarako ikasle guztien parte hartzea bermatzea izango da ariketa honen helburu nagusienetarikoa eta horrekin batera, ideia guztiak kontuan hartzea eta errespetatzea.</p> <p>Sortuko duten abestian ikasle bakoitzak bere rola eduki beharko du; hau da, batek gitarra jotzea erabakitzen badu instrumentu hori izango da bere "betebeharra". Baina ikasleren batek abestu nahiko balu, egiteko aukera izango du. Edo gorputz perkusioa egitea gustatuko balitz, norbaiti, horrekin aurrera egin dezala. Ez zaie instrumentuak derrigorrez jotzea eskatuko, baizik eta bakoitzak bere papera izan dezala, bere nahiak talde guztiak errespetatzea, denon parte hartzea lortzea eta ikasle guztiak haien ekarpenarekin eroso sentitzea.</p>	
<b>TALDEKATZEA</b>	Ikasle guztiek batera lan egingo dute.
<b>IRAUPENA</b>	45-50 minutuko bi edo gehienez hiru saio erabiliko dira. Komenigarria litzateke saio horietako bakoitza egun ezberdinetan banatuta egotea, modu honetan, egunero aktibatu beharko dituzte abestia sortzeko irudimena eta lankidetzeta.
<b>MATERIALA</b>	Instrumentu ezberdinak erabiliko dituzte.

#### 4. 8. Ebaluazioa

Bi aste hauetan zehar, irakasleak etengabeko ebaluazio jarraia egin beharko du, ikasle guztien eta bakoitzaren parte hartzea, ekimena eta ikasleekiko harremana behatuz. Horretarako, jarduera bakoitzaren ostean, saio bakoitzean bizitakoari buruz idatzi beharko du, gertatutakoaren harira zenbait gauza apuntatuz eta hobekuntzei begira zenbait ideia seinalatuz. Horretaz gain, esan bezala, ikasle bakoitzean oinarritzea garrantzitsua da eta beraz, irakaslearen oharrak eta behaketaz gain, aste bakoitzaren amaieran asanblada txiki bat egitea proposatuko zaie ikasleei. Bertan, astean zehar landutako jarduera edo ekintzei buruz hitz egiteko aukera izango dute: gustukoa izan duten edo ez, aldaketarik proposatuko lituzketen, arazoren bat suertatu den eta gertatzekotan, nola konpondu den...

Gutxi balitz, asanbladan ikasleek haien iritzia eta ideiak komentatu ondoren, asteko hausnarketa egiteko bideratutako fitxa bat emango zaie, haiek bakarka betetzeko eta irakasleak hortik hobeto ebaluatu eta behatzeko aukera izanik. Fitxa horrek galdera motzak izango ditu (jarraian agertzen den taularen antza izango du fitxa horrek) eta amaieran, hausnarketa pertsonal motza egiteko aukera eskainiko zaie, nahi duenak bere esperientzian oinarrituta idatzi dezan.

						
Taldeko kideak errespetatu ditut						
Ikaskideen ideiak entzun eta kontuan hartu ditut						
Arikeretan parte hartzeko ahalegindu naiz						
Gainontzekoen emozio, sentimendu edo egoerei dagokion garrantzia eman diot						
Nire emozioak eta sentimenduak errespetatu direla sentitu dut						
Talde bateko kidea sentitu naiz						

## ONDORIOAK

Como cada trabajo que se lleva a cabo, este ha requerido mucho tiempo, esfuerzo e implicación para así poder darlo por concluido, aunque nunca por acabado. Así pues, aunque la principal idea de este se haya desarrollado y se hayan conseguido los objetivos que se propusieron al comenzar este proyecto, existen ciertos elementos en los que queda mucho que hacer, lo cual abre muchas posibilidades de desarrollo del tema de estudio.

Poniendo el foco exclusivamente en el marco teórico, debo admitir que buscar información sobre el tema de este trabajo no ha sido una tarea fácil. Como bien comentaba al comienzo de este proceso de investigación, hoy en día la empatía y la gestión de las emociones es un tema del que mucha gente habla y cada vez de manera más frecuente, afortunadamente. Por ello, estaba convencida de que no habría ningún problema en buscar información sobre dicho tema. Sin embargo, la realidad con la que me he chocado ha sido otra totalmente diferente. Todo cuanto encontraba en internet me brindaba una y otra vez la misma información, aun siendo fuentes o documentos útiles para buscar información diferente. Por este motivo, ha sido complicado desarrollar un marco teórico lo suficientemente plural, en el que exponer conceptos y temas relacionados con la empatía que formasen en conjunto datos e información suficiente y necesaria para entender y construir una base sobre ello.

Además de internet, he recurrido a varios libros de distintos autores con los que he podido completar el marco teórico y, los que han sido, en gran parte, las principales bases del trabajo. Gracias a estos maestros y maestras, investigadores e investigadoras, he sido capaz no solo de encontrar más información sobre el tema, sino también de ampliar mis conocimientos notablemente.

De todas formas, me veo nuevamente obligada a ser crítica con toda la información que ha sido utilizada para poder llevar a cabo este marco teórico, porque no es muy reciente. La fecha más cercana es del 2020 y todas las demás son anteriores a esta, anteriores a la pandemia y al giro que ha supuesto la COVID-19 a todos los niveles educativos. Como ya he mencionado antes, este no es un tema de poca importancia hoy en día, y por ese motivo, esperaba encontrar mucha más información actualizada y dirigida o basada en la situación que estamos viviendo ahora.

Por otra parte, al ser yo estudiante de magisterio en euskera, he querido desarrollar este trabajo en el idioma que creo que me corresponde y que toda la vida me ha acompañado: el euskera. Todo aquel que decida exponer un trabajo en un idioma que no sea inglés ni castellano, está en su derecho de hacerlo y es importante que existan fuentes y documentos que recojan información sobre temas de interés común como puede ser el de este trabajo. Sin embargo, ha resultado ser prácticamente imposible encontrar datos e información sobre la empatía en euskera. Por ello, creo

firmemente que es un tema del que habría que debatir seriamente y trabajar para crear más contenido (ya sean webs, documentos o libros) en este idioma, ya que, como bien he dicho, todo el mundo merece informarse y formarse sobre un tema en el idioma que crea conveniente.

Dejando a un lado el marco teórico, a continuación, voy a centrarme en la propuesta didáctica que se ha creado para este trabajo. En general, creo haber desarrollado un proyecto completo y estructurado de una manera clara, con el que los niños y niñas de los colegios pueden disfrutar a la vez que aprender a valorar los sentimientos y las diferentes situaciones emocionales de los demás compañeros y compañeras; es decir, a trabajar la empatía. No obstante, es cierto que existen varios temas sobre los que, una vez dada por terminada la propuesta didáctica, he reflexionado y quiero compartir.

Para empezar, me hubiese gustado poder poner en práctica todas y cada una de las actividades propuestas para así comprobar de primera mano la reacción de los y las alumnos/as y la efectividad que tienen estas en sus conductas. En cambio, como ya se ha explicado a lo largo de la propuesta, solo dos de las actividades han sido realizadas, pero sin poder seguir estrictamente las bases de este proyecto, ya que no se han trabajado en aulas de tercero de primaria. Por este mismo motivo, aunque el hecho de ponerlas en práctica haya sido de ayuda para *a posteriori* reflexionar sobre cambios y mínimas modificaciones que sugeriría a la hora de realizarlas, es cierto que hubiese sido más efectivo ponerlas en práctica con niños y niñas de 8 y 9 años. Con el paso de los años, vamos adquiriendo nuevas capacidades que afectan al desarrollo empático (como bien está explicado en el marco teórico) y por ello, las actividades deben ser modificadas según la edad del alumnado, para así poder cumplir con los objetivos de cada una de ellas.

Por otro lado, este trabajo conlleva ceñirse y cumplir ciertos requisitos que son imprescindibles a tener en cuenta para poder cumplir con la tarea. Debido a esto, la propuesta didáctica que se ha desarrollado es en cierta medida un pequeño aperitivo de lo que en realidad puede llegar a ser. Llevar toda la propuesta didáctica a cabo superaría lo que es un Trabajo Fin de Grado, por lo que la puerta queda abierta. Lo que quiero manifestar con esto es que, en relación a la extensión de dicha propuesta, cabe destacar que está pensada para trabajarla solo durante dos semanas. En cambio, siendo el principal objetivo de este proyecto trabajar y desarrollar la empatía con el alumnado, creo que este proyecto debería extenderse y hacerlo aún más completo incluyendo más actividades o talleres.

Así pues, al tratarse de un tema tan necesario e importante de trabajar en el aula como es la empatía, me atrevería a decir que estas actividades y propuestas deberían ser parte de todo el curso escolar. Es decir, que sería conveniente (desde mi punto de vista) ponerlas en práctica no solo durante un periodo corto de tiempo, sino durante todos los meses que forman el calendario escolar. De esta forma, es más fácil que los niños y niñas desarrollen y reflexionen sobre la gestión de

emociones, el respeto y en definitiva, la empatía que tanto puede influir en su día a día, ya sea a la hora de crear nuevos vínculos y relacionarse con la gente, como para su desarrollo académico.

Otro de los puntos de los que me gustaría hablar está relacionado con el ya cuestionado tema del idioma. Es cierto que para plantear las actividades de esta propuesta didáctica se ha intentado en todo momento buscar y proponer dinámicas originales. A pesar de esto, en alguna ocasión me he visto obligada a completarlas con medios ya existentes y que han sido considerados efectivos y adecuados como videos musicales. Sin embargo, no he sido capaz de encontrar material de este tipo en euskera, por lo que se ha procedido a crear actividades totalmente nuevas y originales. Este proceso ha sido, en cierta medida, enriquecedor para el proyecto y para el desarrollo personal acerca del tema y los objetivos establecidos. Pero volviendo a lo mismo de antes, creo que deberían existir más ejemplares de este material en idiomas como el euskera, las instituciones y la comunidad debería implicarse más en esto, ya que es una manera efectiva de fomentar el uso de estas lenguas, a la vez que se tratan temas importantes como el respeto y la empatía.

En definitiva, creo que hoy en día existe poco material e información sobre la empatía para lo que debería de haber. Si me ciño únicamente a los objetivos de este trabajo, diría que han sido desarrollados correctamente y finalmente, se han conseguido resolver a lo largo de todo el proyecto.

El cuestionario que se llevó a cabo en el Colegio Público de Atakondoa solo reúne los datos y opiniones de los docentes que trabajan allí, y por eso, tampoco puedo afirmar dar a entender que la situación es la misma en todos los centros. Sin embargo, opiniones y testimonios de otras personas que he podido recoger mientras que desarrollaba este trabajo, concordaban con esos datos. Esto me lleva a pensar que la mayoría de colegios viven una situación parecida o similar. Por consiguiente, es necesario plantear nuevas metodologías basadas en el respeto, la igualdad, la empatía y la gestión de las emociones que impliquen el trabajo en equipo tanto de los alumnos y alumnas, como de los docentes, los centros educativos y las familias.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Armstrong, T. (2017). *Inteligencias Múltiples en el aula*. Bartzelona: PAIDÓS Educación.
- Arrabal, E. M. (2018). *Inteligencia Emocional*. Malaga: Elearning S. L.
- Balsera, F. J., eta Gallego, D. J. (2010). *Inteligencia emocional y enseñanza de la música*. [bertsio elektronikoa]. Bartzelona: DINSIC Distribucions Musicals, S.L. Hemendik eskuratua: [http://www.cem-mariagrever.com/wp-content/uploads/2014/09/inteligencia\\_emocional\\_y\\_ensenanza\\_de\\_la\\_musica.pdf](http://www.cem-mariagrever.com/wp-content/uploads/2014/09/inteligencia_emocional_y_ensenanza_de_la_musica.pdf)
- Barciero, F. T. (2016). *Tema 1. Sentido de la asignatura Educación para la ciudadanía y marco legal. Ética y Educación*. (Argitaratu gabeko eskuizkribua). Hezkuntza fakultatea. Salamancako Unibertsitatea. Salamanca.
- Barrea Gutierrez, M. I. eta Valdospin Moran, B. A. (2017). Repositorio Universidad Técnica de Ambato. Hemendik eskuratua: <http://repositorio.uta.edu.ec/jspui/handle/123456789/24857>
- Carpintero, E., López, F., del Campo, A., Lázaro, S., Soriano, S. (2015). *Bienestar en Educación Primaria: Mejorando la vida personal y las relaciones con los demás*. Madril: Pirámide.
- Castillo Costa, Sonia María del Carmen; Carrion Coronel, Maria Jose. (2016). *Repositorio Digital, Universidad Nacional de Loja*. Hemendik eskuratua: <http://dspace.unl.edu.ec/jspui/handle/123456789/11036>
- Custodio, N., eta Cano-Campos, M. (2017). Efectos de la música sobre las funciones cognitivas. *Revista de Neuro-Psiquiatría*, 60-69.
- Eisenberg, N., eta Strayer, J. (1992). *La empatía y su desarrollo*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- Ellis Ormrod, J. (2005). *APRENDIZAJE HUMANO 4ta EDICIÓN*. Madril: Pearson Educación, S.A.
- Feldman, R. S. (2008). Niñez intermedia. En R. S. Feldman, *Desarrollo en la infancia* (294-380 or.). México: Pearson Educación
- Goleman, D. (1996). *La Inteligencia Emocional*. Madril: Ed. Kairós.
- Kraus, N., eta Chandrasekaran, B. (2010). Music training for the development of auditory skills. *Nature Reviews, Neuroscience*, 599-605.
- Lacunza, A. B. (2012). Las intervenciones en habilidades sociales: revisión y análisis desde una mirada salugénica. *Psicodebate*, 63-84.
- López, F., Carpintero, E., del Campo, A., Lázaro, S. eta Soriano, S. (2006). *El bienestar personal y social y la prevención del malestar y la violencia*. Madril: Pirámide.
- Mena, I. eta Valdés, A. (2008). *Clima Social escolar*. Hemendik eskuratua: <http://centroderecursos.educarchile.cl:80/handle/20.500.12246/55635>
- Moreno Ruiz, D., Estévez López, E., Murgui Pérez, S. eta Musitu Ochoa, G. (2009). Relación entre el clima familiar y el clima escolar: el rol de la empatía, la actitud hacia la autoridad y la



- conducta violenta en la adolescencia. *International Journal of Psychology and Psychological Therapy*, 123-136.
- Moya, L. (2018). *La empatía: Entenderla para entender a los demás*. Barcelona: Plataforma Editorial.
- Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Curriculum (2014). Iruñea: Nafarroako Gobernua. Hemendik eskuratua: [file:///C:/Users/Usuario/Downloads/F1410295\\_LehenHezkuntzako%20\(2\).pdf](file:///C:/Users/Usuario/Downloads/F1410295_LehenHezkuntzako%20(2).pdf)
- Olvera, Y. (2000). *Inteligencia emocional*. Plaza y Valdes.
- Ortega, R. (1998). *La convivencia escolar: Qué es y cómo abordarla*. Sevilla: Conserjería de Educación y Ciencia, Junta de Andalucía.
- Rodriguez, S. E. (2017). *La musica puede incrementar la empatia*. New Vewe. <http://www.newvewe.com/blog/la-musica-puede-incrementar-la-empatia>
- Rubiano, N. (2020). *La música en los procesos de formación: estudio sobre los efectos de un modelo de clase de música en las habilidades empáticas de los estudiantes de segundo grado del IED José Asunción Silva*. (Argitaratu gabeko gradu proiektua). Arte Fakultatea. Pontificia Universidad Javeriana. Bogotá.
- Sáenz, J. (2017). *Promoción de la Empatía en Educación Primaria: Propuesta de Intervención Educativa*. Hemendik eskuratua: [https://gredos.usal.es/bitstream/handle/10366/133397/2017\\_TFG\\_Promoci%F3n%20de%20la%20empat%EDa%20en%20Educaci%F3n%20Primaria.%20Propuesta%20de%20intervenci%F3n%20educativa.pdf;jsessionid=BE2C73AE7B5C44C4973FF50B100DE407?sequence=1](https://gredos.usal.es/bitstream/handle/10366/133397/2017_TFG_Promoci%F3n%20de%20la%20empat%EDa%20en%20Educaci%F3n%20Primaria.%20Propuesta%20de%20intervenci%F3n%20educativa.pdf;jsessionid=BE2C73AE7B5C44C4973FF50B100DE407?sequence=1)
- Wallmark, Z., Deblieck, C. eta Iacoboni, M. (2018). *Neurophysiological Effects of Trait Empathy in Music Listening*. Hemendik eskuratua: <https://doi.org/10.3389/fnbeh.2018.00066>